

Las áreas arboladas con dicponibilidad de espacios abiertos y pastizales se encuentran entre los hábitats característicos ocupados por el búho chico.

tente en un reclamo suave que utiliza para atraer a la hembra. Cría en viejos nidos de córvidos o de otras rapaces. La hembra se encarga de la incubación de los 5-6 huevos de los que se compone su puesta. Al macho le corresponde el aporte de alimento al nido. Al cabo de un mes se producen las primeras eclosiones, con intervalos de dos días. Esta asincronía eclosora que da lugar a una notable diferencia de tamaño entre hermanos, es una adaptación de la especie para que en épocas de escasez al menos el mayor de los pollos sobreviva al hacerse con la mayor parte del alimento. Los pollos volanderos no abandonarán el grupo familiar hasta el otoño.

**Distribución**
Especie de distribución holártica. Se encuentra presente en Norteamérica, Asia central y norte de África. En Europa ocupa casi todo el continente, desde el Mediterráneo al sur hasta las Islas Británicas al norte.
En la Península Ibérica es una especie escasa, aunque aparece con distribución generalizada. En la C.A.P.V. el tamaño de su población es desconocido, en parte al tratarse de una especie que con facilidad pasa desapercibida.

**Estatus y Conservación**
Considerada como «No Amenazada» en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas. La alteración y desaparición de los bosques puede incidir directamente sobre la disminución de sus poblaciones. La muerte de ejemplares por parte de los cazadores es relativamente común en nuestro territorio.

# LANDAREAK

TESTUA: **JAKOBA ERREKONDO**

## Garaian garaiko inausketak

**Lorazantzan ohitura handirik ez dugu euskaldunok, hegoaldekook, batez ere.** Betiko landare espezie gutxi batzuk erabiltzea, diseinuari hutsaren hurrenagoko garrantzia ematea, lorategien mantenuari diru eta lanordu gutxi ematea eta aspaldi ikasitako lan jakin batzuk ahalguztidun bihurtu eta nonahi eta nolanahi erabiltzea dira ohitura falta hori azaltzen duten adierazle nagusiak. Aitaturiko ohitura horietako batetaz arituko natzaizu gaurkoan, inausketaz alegia.
Inausketa lan guztiak udazkenaren amaian edo negu partean egin beharrekoa da ohitura zabalduenetako bat. Hanka sartze galanta! Badira bai urte-sasoi horretan egin beharreko inausketak, baina ez denak. Inausketa urte osoan burutu daitekeen lana da, landare espeziearen arabera eta batez ere landare horrekin lortu nahi dugunaren arabera. Adibidez, hesi edo topiaria forma bat eratu nahi badugu, urtean zehar zenbat eta maizago inausi landareak orduan eta hesi edo itxitura trinkoagoa azkarrago lortuko dugu. Inausketa berezien atala oso zabala da. Oraingoan landareak loratu ondoren egin beharreko aparteko inausketari lotuko natzaio.
Udaberrian eta udan egin beharreko inausketetako bat garai honetan loratu diren zuhaitz eta zuhaixkena da: Forsithia, Azalea, India-gaztaina, Akebia, Amelanchier, Choisia, Calicanthus, Kamelia, Judasen arbola, Chaenomeles lagenaria, Estrepa, Zuhandorrak, Iransagarrak, Deutzia, Isatsak, txilarrak, Eskalonia, Exochorda, Daphne, Kerria, Mahonia, Hamamelis, Helianthemum, Hippophae, Kolkwitzia, Laburnum, Leucothoe, Magnolia, Adelfa, Sasi-azahar lorea, Pieris, Raphiolepis, Arrosa igokariak, Spiraea, Liloa, Weigelia, udaberriko Milazka edo Tamariza, Viburnum opulus, etab. Goiz loratzen diren landare hauek aurreko urtean antolatu dute aurtengo loraldia, batez ere erreserbak pilatuz eta lore-kimuak emango dituzten begiak eratuz. Landare hauek neguan inausten baditugu udaberrian eman behar dituzten loreen adarrak kenduko dizkiegu eta loraldirik ez da izango. Beraz, noiz inausi landare hauek? Sasoi egokiena loratu ondorenekoa da. Garai honetan fruituak eta haziak hazteaz gain datorren urtean loreak emango dituzten adarrak antolatzeari ekiten dio landareak. Lan honetan murgildu aurretik inausiko dugu, honela hurrengo urteko loraldia arte adar berriak guk inausi eran sortu eta atontzeko aukera izango du.

**Galderak luzatu edo gaiak proposatzeko:**

SUSTRAI
Nekazaritza eta Arrantza Saila
Donostia-San Sebastian 1,
01010 Vitoria-Gasteiz

E-posta : mandio@redestb.es

# KOMIKIA

**IÑAKI CERRAJERIA**

